



Mikel Urdangarin musikaria, Bilbon, *Margolaria* izeneko diskoaren aurkezpen ekitaldian. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

# Korrontearen aurkako kantak

Askatasuna ardatz duten hamar kantako diskoa kaleratu du Mikel Urdangarinnek  
 • Musikan hasi zenetik hogeitaz bete direnean, zerbait berezia egin nahi izan du

**Iñigo Astiz** Bilbo

«Ezinegona badut askatasunaren gaiaren inguruan, eta gaur egungo gizarte honetan aske izateak esan nahi duenaren inguruan. Denok ibai zabal baten barruan sartuta gaude, eta korronteak garamatza jomuga bererantz, eta nik neuk ere sarri ikusten dut neure burua korronte horren barruan, baina kantuak korronte horri kontra egiteko ahalegin bat dira nire kasuan. Kantuak askatasun lurraldea dira, eta alienazio horri kontrapisua egiteko nahian datoz». Askatasunaren aldeko defentsa hori eginez aurkeztu du Mikel Urdangarinnek *Margolaria* diskoa (Elkar). Izan ere, sentipen horrek gidatu du oraingoan, dioenez. «Gizon libre ekartzen da gogora, gauza ederra iruditzen zaidalako libre sentitzea, nahiz eta libertate sentipen horrek momentu bat iraun. Horren aldeko aldarri bat dago». Klean da jadanik lana, eta aperi-

laren 8an eskainiko du zuzenean aurrenekoz, Bilboko Campos Eli-seos antzokian, Loraldia jaialdiaren amaiera ekitaldi gisa.

Ohartu gabea zen Urdangarin, baina kazetari batek egindako aipamenak jarri zuen abisuan: hogeitaz bete ditu aurten musi-



**Gizon libre ekartzen du gogora diskoak, ederra delako libre sentitzea, nahiz eta sentipen horrek une bat iraun»**

**Mikel Urdangarin**  
Musikaria

kagintzan. «Zer edo zer berezia egiteko intentzioa oso presente izan dut. Itsasargi horrekin aritu naiz. Eta oso modu bortitzean sentitu dut hori. Aprobetxatu beharra nuela aukera hau esateko non nagoen, zer kezka dutudan, zerk mugitzen duen nire arima musikala oraintxe bertan,

eta saiatzeko hori erakusten». Horregatik erabaki du taldera bueltatzea ere, azken urtean bakarkako bira eskaintzen aritu ostean. «Sentitzen nuenagatik, banekien emozionalki oso indartsua izan behar zuela diskoak, eta horrela abiatu ginen kantuen bila», azaldu du.

«Diskoa nahi nuen freskoa, bizia eta indar handikoa». Zuzenean izan ohi duen soinuaren biluztasuna du diskoak, Urdangarin hitzetan, eta estudioan ahalegin berezia egin nahi izan du horretarako, eta batera grabatu dituzte abestiak.

Urdangarin bera gitarra akustikoarekin, Rafa Rueda beste gitarrak jotzen, Celada baterian, Jon Cañaveras baxuan, Koldo Uriarte pianoan eta teklatuetan. Aparte grabatu dituzte gero ahotsak eta Nika Bitchiashiviliren biolinak, baina, Urdangarin hitzetan, garrantzitsua izan da estudioan

batera grabatutakoaren gainean aritzea. «Bihotza, edo bihotzetariko bat, behintzat, musika, batera grabatuta dago». Bereziki gus-tura aritu da, gainera, prozesu horretan. «Dena eman nahi nuen, ez nuen ezer gorde nahi; hustu egin nahi nuen interpretatzean».

## Bizitza kantatzea

Kanten artean badira 2014an sortutako pieza batzuk, baina, musikariak zehaztu duenez, abenduan idatzitakoak dira hitz guztiak. «Azkeneko lanetan nahita konfinatzen dut hitzak idazteko sasoi grabatu aurretiko azken hilabete horretara, bilatuz, batez ere, ardatz bat hitzetan, eta kantuen arteko bustidura bat». Askatasuna da diskoaren gai nagusietariko bat horregatik. Hitz guztiak ez dira Urdangarinak, ordea: Gerardo Markuletak idatzi ditu, esaterako, *Itsasoa euria* eta *Dena neure baitako* abestien hitzak, eta Xabier Amurizaren testua darama *Mendian*

gora kantak. Imanol Larzabal abeslariak ere musikatuak zituen aurrez Amurizaren hitzak, baina bertsio propioa sortu du Urdangarinnek.

Bere bizitzako «soinu banda» izan da Imanolen abesti hori musikariarentzat, eta omenaldia egin nahi izan dio horregatik. Dioenez, «bortitza» izango da akaso bere moldaketa aurrez ere Imanolen moldaketaren zale direnentzat, baina berak hitzak ulertu dituen ikuspegitik egokitu du musika, eta bertsio alaiagoa egitera eraman du horrek. «Diskoaren funtsa laburbil dezake kanta horrek. 'Kantatuko dut bizitza', dio une batean, eta nik ere kantatu nahi dut bizitza, bere alde ilun eta guzti». Eta abestiaren azken lerroak aipatu ditu horren froga gisa: «Bestela datozen penai/ ez diet surik bota nahi/ ni hiltzen naizen gauean behintzat/ eizue lo lasai». Imanol abestitik kanpo utzitako Amurizaren bi ahapaldi ere berreskuratu ditu, gainera, bertsolari eta idazleak hala eskatuta.

## Bihozkadei adi

Bihozkadek gidatzen dutela dio, eta halaxe hautatu zuen diskoaren titulua ere; bihozkada betean. *Eskutik eskura* deituzkoa zen berez diskoa, eta abian zuten jadanik sustapen kanpaina ere izenburu horrekin. Baina nahasketa eta masterizazio lan guztiak bukatu berritan, eta Victor Sanchez estudioko teknikoa CD amaituari errotuladoren izena idazteko zorian zenean, Urdangarinnek ezetz, diskoaren izena ez zela ordura arte pentsatu bezala *Eskutik eskura* izango, baizik eta *Margolaria*. Diskoaren azala egin dion Alain Urrutia artistari ere egiten dio erreferentzia izenburuak, musikariak dioenez, hain justu harekin egin zuelako amets diskoari izena ematen dion abestiaren hitzak bukatu ezinik zebilenen. «Oihal zuri erraldoi baten aurrean ikusi nuen amets hartan Alain Urrutia, ni neu kanta haren aurrean nengoen bezala. Amildegia ertzean nengoen, zerbait idatzi behar nuen, eta Alainez gidatu ninduen. Frenesi moduko batean ikusi nuen, zoro, pintura kolpe batean irudikatu nuen, eta hura hala ikusteak lagundu egin zidan hitzak idazten».



## KONTZERTUA

**Bilbo.** Larunbatean emango du diskoa aurkezteko lehen kontzertua, Campos aretoan, 20:00etan, Loraldia jaialdiaren barruan.